



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko otsailaren 27a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo otsailaren 11n eta 12an gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuak buru-osasunaren arloan garaturiko politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzaren hitzarmen bat sinatze aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da irati-lizentziak esleitzeko irizpideak aldatzen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, Euskadiko Alderdi Sozialistaren Lazkaoko egoitzaren aurkako atentatua gaitzesteko. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak eta beste zenbait erakunde premiatzen ditu aintzat hartzen enpleguko zentro bereziak kontratazioak egiterakoan. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko zein den Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren iritzia tokian bertako kontsumoari lehenetasuna emateko gomendioei buruz, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (10. or.).

—Galdera, jakiteko ea Gobernuak prest dagoen Erronkariko Udaleko bidezainen etxeen titulartasuna hango udalari lagatzeko, alokairuko etxebizitza babestu gisa erabili ahal izan ditzan, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (11. or.).

- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Enplegu Zerbitzua prest dagoen bere eginkizunak lan merkatutik kanpo egiten dituzten gizarte-boluntarioek zerbitzu horren prestakuntza ikastaroak egin ahal izan ditzaten, Txen-txo Jiménez Hervas jaunak egin (11. or.).
- Galdera, bidezainen etxeak Altsasuko Udalaren esku uzteari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (12. or.).
- Galdera, krisi ekonomikoa aztertzeke lan-talde bat sortzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea 119/2008 Foru Dekretuak emakumeari laguntzeko zentroetan aldaketarik eraginen duen, María Chivite Navascués andreak egin (13. or.).
- Galdera, jakiteko ea krisiaren aurkako neurriak hartzean kontuan hartu ote den generoa, Nekane Pérez Irababal andreak egin (14. or.).
- Galdera, Bidasoa ibaiaren hazierak N-121-A errepideko obretan eragindako kalteei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Comptos Ganberak odol transfusioen zentroari buruzko fiskalizazio txostenean egindako gomen-dioak betetzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egin (15. or.).
- Galdera, emakumeari laguntzeko zentroi buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egin (16. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren 2009rako aurrekontuan aldatutako zenbait kontusaili buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egin (17. or.).
- Galdera, N-133 errepidean eraikitako biribilguneei buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Santa María de Garoñako zentral nuklearra ixteari buruzkoa. Galdera aldatzea (18. or.).
- Galdera, espetxe berriaren proiektuan ingurumeneko eraginaren ebaluazioa egin ez izanari buruzkoa. Galdera aldatzea (19. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ebazpena, Nafarroako Parlamentuan aurkezten diren eskari-idazkien izapidetzeari buruzkoa. Akats zuzenketa (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo otsailaren 11n eta 12an gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo otsailaren 11n eta 12an gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo otsailaren 11n eta 12an gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo otsailaren 11n eta 12an gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen.

ZIOEN AZALPENA

Aurtengo otsailaren 11n eta 12an gertatu diren uholdeen ondorioz, Foru Komunitateko Bidasoako arroko eta Iruñerriko zenbait udalerririk kalteak eta galerak jasan dituzte herritarren ondareetan eta

jarduera ekonomikoaren hainbat sektoretan. Hori dela medio, neurriak hartu behar dira kaltetutako pertsonak eta entitateek izandako galerak arintzeko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57. artikuluari jarraituz, Nafarroako toki entitateen tributuetako zerga hobariak foru lege horretan edo beste foru lege batean baino ezin dira onartu.

Halaber, ezartzen du, toki entitateen tributuei dagokienez, aipatu foru legean xedatutako zerga hobariak ez beste batzuk ezartzen dituzten foru legeek konpentsazio formulak finkatu beharko dituztela.

Foru lege honetan aurreikusi da 2009ko otsailaren 11ko eta 12ko uholdeen ondorioak jasan zituzten Foru Komunitateko kaltetuak salbuetsirik egonen direla 2007ko lurralde kontribuzioaren zerga ordaintzetik.

Beste neurri bat ere ezarri da, toki entitateek finantzabidea lortze aldera uholdeen ondorioz konpondu beharreko azpiegiturak edo ekipamenduak ordaintzeko beharrezkoak dituzten kreditu operazioen bidez.

1. artikulua. Foru lege honen xede da 2009ko otsailaren 11ko eta 12ko uholdeek kaltetutako pertsona eta entitateen aldeko neurri batzuk ezartzea, euriteek kalteak eragin baitituzte Nafarroako Foru Komunitateko Bidasoa arroko zenbait herritan (Etxalar, Bera, Lesaka, Sunbilla, Urdazubi, Baztan eta Malerreka) eta Iruñerriko beste zenbaitetan (Burlata eta Iruña). Nafarroako Gobernuak onetsiko duen zerrendan agertuko dira udalerririk.

2. artikulua. 1. Aurtengo otsailaren 11ko eta 12ko uholdeak direla-eta kalteak jasan dituzten ondasun higiezinak, aurreko artikuluan aipatu udalerritakoak izanez gero, salbuetsirik egonen dira 2009ko lurraldearen gaineko kontribuziotik.

Landa-izaerako ondasunak direnez gero, salbuespena aplikatzeko beharrezkoa izanen da kalteak higiezinan, edo uzta edo ganaduetan gertatu izana, eta horiek enpresa jardueraren bati atxikiak egotea.

Hiri-lurreko ondasunen kasuan, salbuespena aplikatzeko frogatu beharko da bertako pertsonak edo ondasunak, guztiak edo bakar batzuk, beste etxebizitza edo lokal batzuetara eraman behar izan direla izandako kalteak konpondu arte.

Kasua bada, salbuespenak barne hartuko ditu legeak baimendutako errekaruak.

2. Aurreko idatz-zatiko salbuespena izanik 2009ko ekitaldiko kuotaren bat ordaindu duten subjektu pasiboek pagatutako zenbatekoak itzultzeko eskatzen ahalko dute.

3. Arestian xedatutakoaren ondorioz udaletan gertatzen den dirusarreraren murriztea uztailearen 15eko 220/2003 Foru Dekretuan araututako prozedurari jarraikiz konpentsatuko da, 2009ko edo 2010eko aurrekontuko "Toki entitateendako konpentsazioak tributuetako hobariengatik" izeneko kontusailaren kargura.

3. artikulua. Aurtengo otsailaren 11ko eta 12ko uholdeek eragindako kalteak direla-eta azpiegiturak eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obrak finantzatzeko kreditu eragiketarako,

foru lege honen 1. artikuluan aipatutako udalerriek ez dute beharko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 130. artikuluko baimena.

4. artikulua. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 73.1.c) artikuluan agindutako ondorioetarako, presako egoera oso larritzat hartuko da eta alde zaureratik publikitate-rik gabeko prozedura negoziatua erabiltzen ahalko da, kaltetutako toki entitateen azpiegitura eta ekipamenduak konpondu edo berriro jartzeko obrak, horniduren eta laguntzen kontratazioa egiteko.

5. artikulua. Departamentuen beharrezkoen aurre egitea helburu, Nafarroako Gobernuak behar adina kreditu berezi, kreditu gehigarri eta dirulaguntzak emateko baimen izapidetuko ditu, horien kostuaren ehuneko ehunera iriste aldera.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Garatzeko baimena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak buru-osasunaren arloan garaturiko politika orokorrari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak buru-osasunaren arloan garaturiko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, Foru Gobernuaren buru-osasun arloko politika orokorrari buruzko jabeldura aurkeztu dio Osasun kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

Zioak:

Buru-osasunak eragina du gure eguneroko bizitzan, eta lagungarria da ongizatea, elkartzasuna eta justizia soziala lortzeko. Aldiz, buru-osasun txarrak pertsonen eta beren familien bizi kalitatea hondatzen du.

Gaur egun, gero eta gehiago jabetzen gara buru-osasunik gabe ez dagoela osasunik; hona hemen kontuan hartzeko batzuk:

- Lau pertsonatik batek buru-nahasteren bat izanen dute beren bizitzan behin, gutxienez.

- Depresioa da nahaste arruntenetako bat; sei emakumetatik bat pairatzen du, eta, aurreikuspenen arabera, 2020rako gaixotasunik ohikoena izanen da mundu garatuan, bai eta ezgaitasun gehien sortuko dituen bigarren kausa.

- Talde ahul eta baztertuek, hala nola langabe-tuek, etorkinek, ezgaitasunak dituztenek, tratu txarrak jasaten dituztenek eta drogak hartzen dituztenek aukera gehiago dute buru-osasuneko arazoak izateko.

Horrenbestez, beharrezkoa da ikuspegi integratu bat hartzea buru-osasunak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko; izan ere, denoi eragiten digun gaia da. Hala ere, buruko nahasteak ez dira osasun fisikoa bezala tratatzen.

Buruko nahasteen hedatzeak, horien larritasuna eta etorkizunean areagotzeko joerak, bai eta horien tratamenduarekin lotuta azken hamakadetan izandako aldaketa kontzeptual eta teknikoek, eskatzen dute ikuspegi berria izatea eta zerbitzuak antolatu eta emateko era berri bat ezartzea.

Hori dela eta, ikusirik Europan eta Estatuan buru-osasunaren arloan garatzen ari diren ildo estrategikoak, buru-osasunaren arloari buruzko jabeldura orokor hau aurkeztu dugu.

Jabelduraren testua:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari, azalpenak eman ditzan aplikatzen ari den buru-osasunaren arloko politikari buruz eta hurrengo urteetan hartuko dituen neurriei edo jarduketei buruz.

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera, Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordean eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasgeletan ezartzea da hezkuntza-komunitatearen erronketako bat, pixkanaka informazioaren eta ezagutzaren gizartea eta bere baliabideak herritar guztien eskura egon daitezzen.

Azken urteotan, Extremadurako Junta aitzindari izan da informazioaren eta komunikazioaren tek-

nologiak ikasgeletan ezartzen, eta arlo horretako erreferente bilakatu da gure herrialdean. Extremaduran igaro dira ikasgela batean Interneteko sarbiderik gabeko zenbait ordenagailu izatetik ikasgela guztietan arbel digital elkarreragile bat, proiektore bat, ordenagailu bat eta taula elkarreragile bat bezalako tresnak izatera. Horrekin batera, igaro dira hezkuntza-eduki digital gutxi dituen software jabetuna izatetik, software ireki, libre eta hezkuntza arloko aplikazio asko dituen izatera.

Gainera, kontuan izan behar da software librea lagungarria dela ezagutzaren monopolizazioa ekiditeko. Halaber, administrazioa herritarrengana gerturatzeko bultzatzen du, estandarrak eta doakoak diren aplikazioek ekiditen baitute erabiltzaileek lizentziak erosi behar izatea software jabetuna erabili ahal izateko.

Extremaduran abian jarritakoak bezalako praktika egokiak Nafarroako hezkuntza-zerbitzu publikoa hobetzeko eta berritzeko osagai garrantzitsua bilaka daitezke, modu egokian aplikatzen badira. Gainera, kontuan hartu behar da Extremadurak jada sinatu dituela antzeko hitzarmenak beste autonomia erkidego batzuekin; besteak beste, Valentzia, Andaluzia eta Gaztela eta Leonekin. Hitzarmen hori sinatuz gero, Nafarroak lagundu ahal du software horren aplikazio berrien garapenean, eta hori baliagarria izanen da beste autonomia erkidego batzuetako prozesuak hobetzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta onets dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da irriti-lizentziak esleitzeko irizpideak alda ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita irriti-lizentziak esleitzeko irizpideak alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

2008ko abenduaren 11n ezagutarazi zen Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutuna Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeari buruz eginiko txostena eta Ministroen Batzordeak eginiko gomendioak.

Espainiar Estatuko Gobernuak Gutun hori sinatu zuten 1992ko azaroaren 5ean, eta 2001eko apirilaren 9an berretsi zuen. Urte hartako abuztuaren 1ean sartu zen indarrean.

Hala, Gutunaren 11. artikulua arabera –hedabideei buruzkoa–, aldeek ondoko konpromisoa hartu zuten:

Irratiek eta telebistek zerbitzu publikoko zeregina betetzen duten heinean, “erregio edo gutxiengoen hizkuntzan jardungo duten irriti eta telebista bana gutxienez sor dadila ziurtatzea.”

Lehenbiziko ebaluazioaldian, Adituen Batzordeak ondorioztatu zuen konpromisoa ez zela bete, eta agintari eskudunak adoretzen zituen Nafarro-

an euskarazko irriti pribatu bat sortzen edo izaten sustatu edo lagundu zezaten.

Bigarren ebaluazioaldi honetan, Adituen Batzordeak berriro esan du “lizentzia bat ematea eta, horren ondorioz, dirulaguntzak ematea da modurik errazena irriti kate bat sortzen edo izaten sustatu edo laguntzeko. Hori dela eta, eta Euskalerrria Irratia denez bere programazio osoa euskaraz ematen duen irriti kate bakarra, ez dirudi Nafarroako agintariak neurriak hartu dituztenik gehienbat euskaraz emititzen duen irriti kate bat sortzen edo izaten sustatu edo laguntzeko.” Horrenbestez, Adituen Batzordeak jarraitzen du pentsatzen konpromiso hori ez dela bete, eta agintariak premiatzen ditu irriti kate pribatuei laguntza emateko bideak bila ditzaten. Halaber, Adituen Batzordeak agintari eskudunak adoretzen ditu Nafarroan euskarazko irriti pribatu bat sortzen edo izaten sustatu edo lagundu dezaten.

1998an lizentziak emateko egin zen prozesua, non Euskalerrria Irratia baztertuta geratu baitzen, deuseztatu egin du Nafarroako Auzitegi Nagusiak. Ondoren beste lizentzia banaketa bat egin zen, baina Nafarroako agintariak berriro baztertu zuten aipatu irriti katea. Lizentziarik gabe, irriti kateak “ezin du eskatu” dirulaguntzarik, eta, hori dela eta, berriro baztertuta geratu da abenduan egin zen dirulaguntza banaketan.

Euskalerrria Irratiak 20 urte daramatza euskara hutsean emititzen Iruñetik eta oraindik ez du administrazioaren baimenik. Hori dela eta, ezin du dirulaguntzarik jaso foru administratibotik.

2005eko abenduaren 23an, Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen Euskalerrria Irratiaren administrazio-egoera legeztatu zezan. Hori ez da bete, baina konpondu daiteke irriti kateei administrazioa-emakidak esleitzeko lehiaketaren hurrengo deialdian.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak emaniko bi txostenei jarraituz, irriti-lizentzien etorkizuneko esleipenetan, baimena eman diezaiola programazio osoa euskaraz ema-

ten duen irrati bati, eta horretarako kontuan har dezala azken hamarkadetan irratiaren arloan euskararen alde egindako lana.”

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, Euskadiko Alderdi Sozialistaren Lazkaoko egoitzaren aurkako atentatua gaitzesteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela Euskadiko Alderdi Sozialistaren Lazkaoko (Gipuzkoa) egoitzaren aurka bart eginiko atentatua, eta bere elkartasuna eta babesa helarazten die alderdi sozialistako afiliatuei, eraikineko bizilagunei eta Gipuzkoako herri horretako biztanleei.

Orobat, Nafarroako Parlamentuak zeharo gaitzesten ditu Nafarroan nahiz Euskal Autonomia

Erkidegoan azken aldian gertatu diren indarkeria ekintzak.

Nafarroako Parlamentuak ETari exijitzen dio bazter utz ditzan bere ekintza terroristak eta ez ditzan berriz mehatxatu gizartearentzat etorkizunerako bakea eta askatasuna nahi dutenak, eta espero du Euskadiko herritarrek, igandean, hautestontzietan, adieraz dezaten demokraziak euskal herriaren etorkizuna indarkeriaren bidez etengabe baldintzatu nahi dutenak garaitu dituela.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta beste zenbait erakunde premiatzen ditu aintzat har ditzaten enpleguko zentro bereziak kontratazioak egiterakoan.

BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeak, 2009ko otsailaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta beste zenbait erakunde premiatzen ditu aintzat har ditzaten enpleguko zentro bereziak kontratazioak egiterakoan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta beste zenbait erakunde premiatzen ditu aintzat har ditzaten enpleguko zentro bereziak kontratazioak egiterakoan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezgaitasunen bat duten pertsonen buruzko legezko erreserba (50 langile baino gehiagoko enpresetan, % 2) betetzea eska dezan.

Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta udal eta erakunde publiko guztiei, ahalegina egin dezaten kontratuak egin behar dituztenean eta kontuan har ditzaten enplegu zentro bereziak.

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zein den Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren iritzia bertako produktuen kontsumoari lehentasuna emateko gomendioei buruz.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein den Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren iritzia bertako produktuen kontsumoari lehentasuna emateko gomendioei buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, krisi ekonomikoa gainditzeko bertako produktuen kontsumoari lehentasuna emateari buruzko gomendio publikoen gainekoa, Nafarroako Gobernuak, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zenbait arduradun publikok behin baino gehiagotan gomendatu du lehentasuna emateko bertako produktuen kontsumoari. Jarrera horrek merkataritza askatasunean izango lukeen eragina kontuan hartuta, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak gomendatzen al du lehentasuna emateko bertako produktuen kontsumoari?

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea Gobernua prest dagoen Erronkariko Udaleko bidezainen etxeen titulartasuna hango udalari lagatzeko, alokairuko etxebizitza babestu gisa erabili ahal izan ditzan.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Gobernua prest dagoen Erronkariko Udaleko bidezainen etxeen titulartasuna hango udalari lagatzeko, alokairuko etxebizitza babestu gisa erabili ahal izan ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernua prest al dago Erronkariko Udaleko bidezainen etxeen titulartasuna edo erabilera hango udalari lagatzeko, alokairuko etxebizitza babestu gisa erabili ahal izan ditzan?

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Enplegu Zerbitzua prest dagoen bere eginkizunak lan merkatutik kanpo egiten dituzten gizarte-boluntarioek zerbitzu horren prestakuntza ikastaroak egin ahal izan ditzaten.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Enplegu Zerbitzua prest dagoen bere eginkizunak lan merkatutik kanpo egiten dituzten gizarte-boluntarioek zerbitzu horren prestakuntza ikastaroak egin ahal izan ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzua prest al dago beren eginkizunak lan merkatutik kanpo egiten dituzten gizarte-boluntarioek enplegu zerbitzu horren prestakuntza ikastaroak egin ahal izan ditzaten?

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, bidezainen etxeak Altsasuko Udalaren esku uzteari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, bidezainen etxeak Altsasuko Udalaren esku uzteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Bidezainen etxeak Altsasuko Udalaren esku uzteari buruzko galdera.

Zergatik ez dira Altsasuko Udalaren esku uzten bidezainen etxeak, pasadizokoen ostatua bertan jartze aldera?

Iruñean, 2009ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, krisi ekonomikoa aztertzeke lan-talde bat sortzeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, krisi ekonomikoa aztertzeke lan-talde bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Krisi ekonomikoa aztertzeke lan-talde bat sortzeari buruzko galdera.

- Zer irizpide baliatu dira lan-taldea osatzen duten erakundeak eta pertsonak hautatzeko?

- Zer maiztasunez bilduko da lan-taldea? Zer gai jorratuko ditu?

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko ea 119/2008 Foru Dekretuak emakumeari laguntzeko zentroetan aldaketarik eraginen duen.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea 119/2008 Foru Dekretuak emakumeari laguntzeko zentroetan aldaketarik eraginen duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite

Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2008ko abenduaren 19ko 154. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 119/2008 Foru Dekretua, Tokoginekologia eta Familia Plangintzako osasun prestazioen antolamendua ezartzen duen 259/1997 Foru Dekretua aldatzen duena.

Hori dela eta, honako galdera egin nahi dut:

119/2008 Foru Dekretua aplikatzearen ondorioz, aldatu egingen da emakumeari laguntzeko zentroetako egiturari, langileei edo helburuei buruzko ezer?

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko ea krisiaren aurkako neurriak hartzean kontuan hartu ote den generoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea krisiaren aurkako neurriak hartzean kontuan hartu ote den generoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuo lehendakariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Emakumeen Aurrerapen Munduan izeneko txostena bi urtetik behin argitaratzen da, genero berdintasunari buruzko aurrerapenak sakonki aztertze aldera. Gaur egungo krisi globala dela eta, UNIFEMen 2008/2009ko txostena erabat egokia da; izan ere, agerian uzten ditu munduan oraindik ere gertatzen diren desoreka handiak, bai eta genero berdintasunaren aldeko apustua egiteko beharra, garapen- eta hazkunde-eredua aldatzeko estrategia global gisa. Une honetan, zeinetan gobernuaren kezka nagusia baita sistemari likidezia ematea eta hazkunde eta garapena berpiztea, genero berdintasunaren arloan atzera egiteko arriskua handiagoa da, berdintasunaren helburua agenda politikoaren erdigunean dagoela ez bada bermatzen.

Krisia ezin da inoiz aitzakia izan konponbide partzialak aplikatzeko; hain zuzen, orain urrats gehiago egin behar dira gizarte berdina lortze aldera, non gizonezkoek eta emakumezkoek bizitzaren arlo guztietan dituzten beharrezkoak errespetatu eta familiaren arreta eta zaintzarekiko ardurakidetzara sustatzen baitira.

Agerikoa bada ere neurriak hartu behar direla enpleguaren sorrera bultzatzeko, ezin diogu kontratazioaren balantzari gizonezkoen aldera eragin. Zenbait elkarte ohartarazi dute Krisiaren Aurkako Planaren bidez bilatzen den enpleguaren sorrerak baduela emakumezkoentzat negatiboa den genero-joera; izan ere, enplegu gehienak eraikuntzaren arlokoak dira, eta sektore horretan emakumeek ez dute % 10 ere egiten.

Adi egon behar dugu "gizonezko hornitzaile-emakumezko zaintzaile" moduko eredu patriarkal eta sexisten balizko suspertzea dela eta, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun eredu baten orde. Neurri berean babestu behar da gizonezkoen eta emakumezkoen enplegua.

Halaber, ezin dugu ahaztu Nafarroako Gobernuari krisia konpontzeko aholkuak emanen dizkion Adituen Batzordeko 33 kideetatik soilik 3 direla emakumezkoak. Zaila da sinestea ez dagoela adituen talde horretan egon daitekeen emakume gehiagorik. Galdetu beharko litzateke Gobernuari aholku emateko hor dauden 33 pertsona horiek generoaren eta aukera berdintasunaren arloko prestakuntzarik ba ote duten, eta nola bermatuko den krisiari bai gizonezkoentzat eta bai emakumezkoentzat zuzena eta bidezkoa izanen den irtenbidea ematea.

Hori dela eta, parlamentu-talde honek galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuo lehendakariari, azaldu eta argitu dezan generoa aintzat hartzen ari ote den, eta nola, krisiaren aurkako neurrietan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Bidasoa ibaiaren hazierak N-121-A errepideko obretan eragindako kalteei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Bidasoa ibaiaren hazierak N-121-A errepideko obretan eragindako kalteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer kalte eragin zituen, eta zenbatekoak, otsailaren 11n eta 12an Bidasoa ibaiak izandako hazierak N-121-A errepideko obretan?

Zenbateko atzerapena eragin dezakete uholdeek aipatu obrak egiteko ezarritako epeetan?

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Comptos Ganberak odol transfusioen zentroari buruzko fiskalizazio txostenean egindako gomendioak betetzeari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Comptos Ganberak odol transfusioen zentroari buruzko fiskalizazio txostenean egindako gomendioak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

mentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Osasun Departamentuari, idatziz erantzuteko:

Comptos Ganberak Nafarroako Odol-transfusioen Zentroari buruz egindako txostenean, egotzaren azterketa zehatza egin zuen eta, ondorioz, zenbait gomendio eman zituen.

Besteak beste, Odol-emateari eta Transfusioei buruzko Planarekin batera zelulei eta ehunei buruzko beste plan bat prestatzeko aukera aztertzea, jarduera eta koordinazio esparru argia izateko osasun planen barruan.

Departamentuak igorritako Osasun Plan Estrategikoa aztertu dugu eta ikusi dugu bertan ez dela horri buruzko ezer agertzen.

Ulertu behar al da ez duela ezer egiten zelulen eta ehunen zentro edo banku hori sortzeko eta osasunarentzat funtsezkoak diren gaietan, ikerketan eta osasun arloko teknologiaren garapenean

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parla-

erreferente izateko, Comptos Ganberaren txostenean hori gomendatzen bada ere?

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, emakumeari laguntzeko zentroi buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, emakumeari laguntzeko zentroi buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Osasun Departamentuari, idatziz erantzuteko:

Informazio bat iritsi zaigu eta Osasun Departamentuak egiaztatzea nahiko genuke.

Nafarroako Ospitalearen eremu berean dagoen Ermitagañako emakumeari laguntzeko zentroan, itxuraz, ez da lan askorik egiten, eta, aldiz, beste zentro batzuetan iritsi ezinik ibiltzen dira emakumeen eskariari erantzuteko.

Hauxe jakin nahi da:

Zeintzuk dira zentroen arteko desoreka horren arrazoiak?

Zenbat langile daude zentro horretan emakumeak artatzeko?

Zenbat emakume izan dira zentro horretan azken bi urteotan?

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Osasun Departamentuaren 2009rako aurrekontuan aldatutako zenbait kontusaili buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren 2009rako aurrekontuan aldatutako zenbait kontusaili buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutako jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu dizkio Osasun Departamentuari, idatziz erantzun ditzan. Xedea da argitzea 2009ko aurrekontuko kontusail batzuk hain aldaketa handia zergatik izan duten eta zertarako erabiliko diren.

– 541. programa. Laguntza espezializatua. Goi karguen soldatak. 298.175 euro. Zein da igoera horren xedea eta zer ardura dute goi kargu horiek?

– 541. programa. Osasun etxeak. Goi karguen soldatak. 494.639 euro. Zenbat dira goi karguak?

– Itxaron zerrendak murrizteko aldi baterako kontratudunen soldatak. Harriztekoa da osasun etxeetan zerrendak egotea. 1.472.608 euro. Zenbat langile kontratatu edo kontratatuko dira?

– Guardiak egiteagatiko osagarria, 5.909.403 euro. Kontusail hori izateak esan nahi du guardiak egiten dituenak ordainsaria jasotzen duela ordu bereziaz gain?

– 543. programa. Bideko Ama Birjina Ospitalea. Ondoko kontusailak argitzea eta adieraztea zenbat pertsona izanen diren horien onuradunak:

– Funtzionarioen ordainsari finkoak, guztira. 57.679.120 euro. Kontusaila nabarmen handitu da.

– Itxaron zerrendak murrizteko aldi baterako kontratudunen soldatak. 1.659.390 euro.

– 545. programa. Tuterako osasun barrutia. Itxaron zerrendak murrizteko aldi baterako kontratudunen soldatak. 854.118 euro.

– Tuterako osasun-barrutiko osasun etxeak. Itxaron zerrendak murrizteko aldi baterako kontratudunen soldatak. 413.029 euro. Zenbat kontratu egingen dira?

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, N-133 errepidean eraikitako biribilguneei buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, N-133 errepidean eraikitako biribilguneei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatu-

aren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Duela gutxi jakin dugu Valtierra abian jarri dela AP-15 errepiderako sarrera-irteera duen lotune berri bat, Zaragozako norabidean.

Proiektu beraren barruan, eta autobiderako sarbideak antolatze aldera, bi biribilgune itxi egin dira N-113 errepidean, Castejón eta Los Abetos izeneko bidegurutzearen artean.

Galderaren testua

Herri Lan Departamentuaren ustez, N-113 errepidean eginiko biribilguneetako seinaleak, argiztapena eta babes-neurriak nahikoak al dira biribilgune hori modu seguruan eta egokian erabili ahal izateko?

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, Santa María de Garoñako zentral nuklearra ixteari buruzkoa.

GALDERA ALDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Aldatzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko galdera, Santa María de Garoñako zentral nuklearra ixteari buruzkoa, eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak erantzun dezan. Gal-

dera 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, espetxe berriaren proiektuan ingurumeneko eraginaren ebaluazioa egin ez izanari buruzkoa.

GALDERA ALDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Aldatzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, espetxe berriaren proiektuan ingurumeneko eraginaren ebaluazioa egin ez izanari buruzkoa, eta Lurrealdearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak erantzun dezan Lurrealde-

aren Antolamendu eta Etxebizitza Batzordean. Galdera 2009ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ebazpena, 2009ko otsailaren 23koa, Nafarroako Parlamentuan aurkezten diren eskari-idazkien izapidetzeari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ebazpena, 2009ko otsailaren 23koa, Nafarroako Parlamentuan aurkezten diren eskari-idazkien izapidetzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak Nafarroako Parlamentuan aurkezten diren eskari-idazkien izapidetzeari buruzko ebazpenean akatsak daudela ikusita –ebazpena 2009ko otsailaren 25eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, bidezkoa da ondoko zuzenketa egitea:

Ebazpenaren idazpuruan ondokoa dio: “Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ebazpena,” eta hauxe behar du: “Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ebazpena, 2009ko otsailaren 23koa.”

Testuaren amaieran sinadura gehitu behar da. Hona testua: “Iruñean, 2009ko otsailaren 23an. Lehendakaria: Elena Torres Miranda”

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda